

II. EKONOMIAREN OINARRI PSIKOSOZIALAK

Ekonomia eta psikologia Beharrezko baterakuntzarako oinarriak

XIX. mendea esentzialki liskargilea da. Darvinen "struggle-for life" serioegi hartua izan da. Beti pasatzen dena da; akzio bat seinatu ohi da; gero halabehar bat bezala onartzen da; azkenik bandera bihurtzen da. Egunen batean akzioa ez zela benetan egia edo osotasunean gezurra zela, banderak gutxi gora behera kolorea galduta, ez du mugitzetik uzten.

Juan De Mairena (Machado, 1936)

1.1 Sarrera

1901eko abenduaren 20an Walter Dill Scott doktoreak, konferentzia bat eman zuen publizitatean psikologia aplikatzeko dauden posibilitateak deskribatuz. Segurua da, data hori, psikologia industrialaren hasieran bilakatuko zela inork ez zuela aurreikusi: negozio eta enpresetan aplikaturiko psikologia, eta hedaturagatik, ekonomiara. Hala ere, horrela nabarmenduko da beranduago, amerikar idazle espezializatuen zati handi batengatik (Ferguson, 1962; Blum eta Naylor, 1981; Korman, 1978). Baieztapen hau gehiegizkoa eta baita ere zehazgarritasun txikikoa iruditzen zitzaion aditu europearrei, maila teoriko handiagoko gauzetan arduratuta, baina egia esan, datua aldagaitz agertzen da jadanik, orain dela denbora bat literatura zientifikoan. Dударik gabe, EEUU-etatik jatorria dutenetan.

Egia da psikologia aplikatuaren zati handi bat herrialde hartan sortu zela. Batik bat enpresa eta ekonomiarekin erlazionatua. Honela frogatzen dute Hugo Munstemberg eta Walter Dill Scottetek eginiko lanek. Psikologia aplikatuaren esparruan kokatzen ditugun egile oso ospetsuak dira, eraginkortasun industrial, publizitate eta XX. Mendearen hasieran pertsonalaren aukeraketari buruz eginiko ikerketengatik. Baina ez bata eta ezta bestea ere, ez dira lehenak negozio, enpresa eta ekonomiarekin erlazionaturiko gaiez arduratzen.

Adierazia, atal honetan tratatu behar dugunagatik, bereziki errebelagarria da. Lehenik eta behin, nahaste bat eragiten du, saihestu edo alde batera uztea ezinezkoa den zehaztasun historiko bat. Bigarrenez, interpretazio desegoki bat edo beste. Eta hirugarrenez, motibazioak eta emozioek, lehen interpretazioetan eta konstruktibo teorikoek ekonomiaren jokabidean izan duten garrantzia historian zehar.

Filosofo, psikologo eta ekonomistak ekonomiaren aspektu psikologikoen kezka 1901a baina lehenagoko gauza da. Egia da, psikologia industrial, amerikar industriarekin elkartuta, aurreko mendearen hasieran sortu zela, baina lanaren psikologiaren (gizakien arazoekin kezkatuta) lehen erreferente teorikoak askoz lehenagokoak dira.

Gainera, ez publizitatearen psikologia eta ezta psikologia industrial, ez dira zakarki garatzen. Finkatze teorikoa XX. mendeko hamarkadaren ondoren kokatzen dugu, baita koka dezakegu bigarren mundu gerraren ondorengo lehen urteetan ere, besteak beste, George Katona, ondorengo kapitulu luze eta zabal hitz egingo duguna, idazlearen eraginpean, besteak beste, psikologia ekonomikoa, ikerketa zientifikoaren ezaugarri eta betebeharez hornitu baitzuen.

Bestalde, psikologia ekonomikoa gutxi edo gaizki ezagutua da gure lurraldean. Ondorioz, ez da antzematen lehen manifestuek izan zuten garrantzia, gero psikologia aplikatua, eta nola ez ekonomia aplikatua, garatzeko.

Bereziki esanguratsua da sortzen den nahaspila psikologia ekonomikoa eta publizitatearen psikologiaren artean. Batzuetan askatuta agertzen dira, psikologiaren espezialitate ezberdinak bezala. Beste batzuetan, biak elkartzean, ez da deduzitzen bere jatorri teorikoa, harena honen gainetik, aitzitik alderantziz gehiago eman ohi da. Sarritan, esparru komertzialari aplikaturiko eremu psikologikoa, salmenta eta marketing-a integratuz, publizitatearen psikologiatzat hartzen dute.

Non gelditzen da orduan psikologia ekonomikoa? Beste gauza bat ematen du, zertaz ari garen jakitera iritsi gabe. Gainera egia baino gehiago asmakizuna dirudi. Gertuko bi diziplina edo espezialitatearen arteko eremu mugakideen artean sortzen diren hainbat eta hainbat artifizio intelektual behartuetako bat. Okupatu gaituen kasu honentzat bidegabea da. Psikologia ekonomikoak historia luzea, objektu bat eta metodo diferentziatu batekin kontaktzen du. Hala ere, eta gehienetan, sarriagotan publizitatearen psikologian, kontsumitzailearen jarreraren, salmenten psikologian eta marketing-aren (edo aplikatuaren) psikologian erreferentziatzen gara. Edo aurreko guzti horiek batuta, emendiozko elkarteak sortuz, titulu diziplinario berriak iradokiz. Gure aburuz, parteak guztiarekin nahasiz. Nola aipatu publizitatearen psikologia, bere aktibitate komertziala eta kontsumoaren aspektu mikro eta makroekonomikoak kontutan eduki gabe?

Komunikabideen garapenari esker leku nabarmen batean utzi dute publizitatearen psikologia. Egia da. Baina, erosketekiko jarrera eta jendea eroatera bultzarazten duen arrazoi psikologiko bakarra publizitateak al du? Ez dira garrantzitsuagoak baldintzapen ekonomikoak, eragin kulturelek edo gizartearen eragina kontsumitzailearen jarrera azaltzerakoan? Gainera benetan garrantzitsua dena, soilik ekonomikoki eta sozialki aipagarria al da erosketen portaera?

Bistakoa da, badaudela beste manifestazio asko gizartearen jarreraren, ezin direnak psikologiarekin aztertu, adibidez: zergen aurrean dituzten jarrerak, aurrezteak edo diruari ematen dioten balio subjektiboa. Hauek denek, beste askok eta publizitateak, psikologia ekonomikoaren ikerketa eta esku-hartzearen eremu orokorra osatzen dute.

Azken finean, badaude erlazio batzuk, maila teoriko eta ikertzaile nagusiagoak psikologia eta ekonomiaren artean. Psikologia ekonomikoaren erlazioak, gizarte- psikologiaren espezialitatea, ahal du eta azaldu egin nahi du. Beranduago ikusiko dugun bezala, nahiko zaila da ekonomiaz hitz egitea psikologia kontutan hartu gabe. Psikologiarekin ere berdina gertatuko da, batez ere gizarte psikologiarekin, ekonomiari buruz. Gaur egun, eta ia bada denbora dezente, bi diziplina hauen artean teoriak, ezagutzak eta teknikak etengabe elkar banatzen direla. Nahiz eta ez beti jakin, edo ez jakin nahi horrela denik.

Egia esan ez dira argumentu gehiegi behar badirela zenbait baterakidetasun ekonomia eta psikologiaren artean. Batez ere, giza portaeraren azterketan duten jakin minean biek bat egiten dute. Edo nahiagokoa bada, jarrera ekonomikoaz, hau da, azken finean, dimentsio bat, garrantzitsuenetan, gizartearen jarreraren. Nahikoa da ekonomiako eskuliburu aipagarri eta ezagunen bat hartzea eta gainjarpenak ikustea. Adibidez, Paul Samuelson eta William Nordhausek (1986:6) baieztatzen dute, ekonomia eta gizarte zientziei erreferentzia eginez, zera: "zientzia politikoa, psikologia eta antropologia zientzia sozialak dira denak eta beraien ikerketaren objektuak partzialki ekonomiarenarekin bat dato".

Peguin Dictionary of Economics zerbait esplizituagoa da ekonomia definitzean esanaz, "jokabideen aspektuak eta giza instituzioak aztertzen dituen zientzia da, dituzten errekurtso gutxiek, gizakien beharrak bete nahirik, ongiak eta zerbitzuak produzitu eta banatuz". Edo Robert Frank (1992), bere eskuliburuaren izenburutik hasita (*Mikroekonomia eta jokabideak*), itxuratzen duen aurkibidearekin jarraituz, (sei kapituluz osaturiko zati oso bat eskaintzen dio kontsumitzailearen jarrerari), eta karakterizatzen duen ikuspegiarekin amaituz (esentzialki kognitiboa), bi diziplinen arteko lotura bat eskaintzen du argi eta garbi.

Ageritakoaren ostean, garbi gelditzen da kapitulu honen asmoa denboran zehar ekonomia eta psikologiaren artean dauden harremanak deskribatuta uztea dela, fenomeno ekonomikoak funtsezkoak baitira gizakien fenomenoetan. Hau da, enfasi eta nabardura gehiago edo gutxiagorekin, ekonomiaren historiak demostratzen du pentsamolde honen zientzialarien kezka, gizakien ekintzek izan duten eraginaren muga jatorri, ekoizpen eta aberastasun eta errekurtsoak banatzerako garaian. Nahitaez gizakiaren ikusmolde bat suposatu du.

Psikologia ekonomikoaren testuinguruan, psikologia sozialean eraginda eta aldi berean integratua ere, pertsonak objektu aktibo bezala kontsideratzen ditugu; ekoizpenean eta kontsumoan eragina izateko ahalmena du; portaera konplexu bat burutuz, ez beti auresangarri eta elkarrekiko eragin handikoa eta fenomeno ekonomikoez eragina. Suposa dezakegunez, ez dira aldaketarik gabe gelditu gertaera hauek ikertzeko printzipioak, eta ondorioz, honi buruzko ideia eta teoriak eboluzionatuz eta beraien istorio propioa sortuz joan dira denbora pasa den heinean.

Hala ere, psikologia ekonomikoa, psikologiaren espezialitate bezala orain dela gutxi hasi da. Historiaren zentzu zorrotzean oso berria da. Nahiz eta gizakion jarreraren influentziarenganako kezka antzinatetik datorren. Zirkunstantzia hau ez da diziplina honen bereizgarri. Era batetik edo bestetik filosofia edo filosofiaren hausnarketa batetik datozen denei gertatzen zaie.

Psikologia ekonomikoaren sorrera ere ikertzaileek jasotako ezagutzaren metaketak eboluzio historikoarekin duen erlazioekin azter daiteke. Ekonomiaren eta psikologiaren artean kontuan izanik dauden elkarrenganako influentziak, aurkikuntzetan eta produktu eta efektu teoretan, posible litzateke eboluzioa lotzea.

Erlazio komenigarrien istorio bezala kontatu dezakegu. Ez luke harritu behar, diziplina baten ezagutza zientifikoak, bai ekonomiaren kasuan eta baita psikologiarenean ere, aldizka eta era ezberdinean aurreratzen baitira. Aldi batzuetan, bestearen diziplinaren kezketan, marjinen kanpoan gelditzen diren anplitudeen arabera. Beste batzuetan, prozesua orekatua ikusi da edo denboraldi bateko hutsarteak sortu dira inolako aurrerapauso berezirik gabe. Besteetan, azkenik, psikologiak ekonomiaren gertuko arazoez arduratu da, ekonomiaren atentzioa deitu ez duelako. Eta alderantziz.

Hau dena ikusi ostean, psikologia ekonomikoa, hasiera batean, psikologia eta ekonomiaren artean dauden erlazioen historia dela. Kapitulu honen lehen zatia zirkunstantzia hauek aztertzeari eskainiko diogu. Hasieran zegoen sinkretismotik, hausnarpenera psikologikoa eta ekonomikoa gauza bera zela pentsatzen zutela, independentzia diziplinar batera eta bukatzeko hurbiltasun unitario batera, metodo eta espezialitateetan anitza, jarrera ekonomikoarekin baterakidea gutxi gora behera.

1.2 Psikologia eta zientzia ekonomikoak

Zentzu handi batean kezka psikologikoak akzio ekonomikoa bera bezain zaharrak izatea. Nork uka dezake trukaketa rik primarioenetan, trukean adibidez, *a priori* ez zutela kontutan hartzen bestearen izaera eta pentsaera?

Adibideak anitzak dira, oro har literaturan nabarmendu ahal izango litzatekeenak, eta alde batetik edo bestetik, jarrera ekonomikoan aitzindariak bezala kontsideratu ditzakegunak. Antzinatasunetik ugaldur dira giza jarreraren eta ekonomiarenganako ideiak, izaera filosofiko, politiko edo besterik gabe onaren suposaketa eta ideiak. Pentsalari batzuek bizi behar izan zituzten arazo eta zirkunstantziak adierazi nahian, ezagutzaren garapenarekin lagundu zuten eta izaera ekonomikoaren gertakariak adierazteko erabilgarri izan ziren, gizakion akzioei erabat lotuak zeudenak.

Jenofonte-k etxeko ekonomiari buruzko azterketak zorrotzak egin zituen. Beranduago, Hesiodok lehenik eta Virgiliok ondoren baserriko lanei buruzkoa burutu zuten. Ala ere, klasikoen ideiare funtsa, gizakiaren ikusmoldearengan dago. Ordutik ikusmolde hori aldaketekin aurkeztzen delarik. Bi gizaki espezie handiren existentzian datza: elitea, agindu eta gidatzeko pribilegioekin hornitua eta masa, intelektualki mugatua eta orden jakin batzuk betetzera ohitua. Jarrera, ideia eta lanerako kontzeptuak garbi adierazten dute aurkakotasun hori (Quintanilla, 1989).

Varronek eta era batera, baita Platon, Aristoteles eta Catonek ere, noblearen mentalitatea eta kapazitateak, masaren aurka jartzen dituzte, batez ere esklaboek "sentimendu gabek". Varron-en ustez esklaboak kulturaren instrumentu dira. Eta instrumentu hauek "hiztun generoa" (esklaboak), "artikulatu gabeko generoa" (animaliak) eta "genero mutukoarenak" (egur eta burdin instrumentuak) ulertzeko gai dira. Hortaz, esklaboa instrumentu bat da. Lan egite hutsagatik gaiztotua. Ekoizle bezala lana egitearen justifikazioa, zikoiztasun hori izatea, apetitu zabartasuna eta pasio baxuak izatea da. Nobleak haiek, nobleak ez direnak hauek. Horrela jasotzen da, aurkakotasun horretatik oreka bat, orden natural bat. Gizarte egitura bat, non esklaboa aberastasunak lortzeko tresna baliagarri bat izanik.

Erdi aroan, kristautasunaren influentziarean, orden natural hark, jatorri jainkotiarreko ordena nagusiago batetan du justifikazioa. Justifikazio naturala, normalean moralagatik eta gizarte erregulazio subsekuente batez ordezkutzen dela esanaz osatzen da. Horrela, gizakiaren ahulezia moral hori, arau zorrotz batzuen menpe jartzen da: agindupekoa bere jabearekin, edo artisauak beraien artean lotuz.

Denarekin, oinarrizkoena giza hiritartasunean eragina izateko, gizaki kontzeptuan, arima ez moral bat errotuko du, eta beraz, gizon guztiak berdina izango gara duintasunaren aldetik. Jainkoak zure esfortzuak saritzen baditu, biziraupen ekonomikoan laguntzeko da. Honela gizakiaren ideia agertu, azaleratu eta baieztatzen da, non agindupekoa, orden natural batean, ez dela justifikatutako ekoizpen instrumentu bat. Aurkako eran, arrazoi moralengatik haren jaun feudagatik babestuta, lanak egingo ditu, jatorri jainkotiarren ordenak justifikatuta. Era berean, noble, artisauek eta esturktura sozial bereko kideek beraien betebeharrak beren gain hartuko dituzte.

1.2.1 Lehen filosofo ekonomistak

Gizakiaren izatean zituzten lehen suposizio edo interpretazioetan sinkretismo filosofiko (politiko eta sozial) bat ezkututzen zen, hasierako kezketan nabarmenduko zena, aberastasunen

garapenean gizakiaren duen papera aztertzerakoan. Honen bitartez, jarrera ekonomikoaren ikerketen lehen gerturatzeak, XVIII. mendean ongi sartuak, postulatu filosofikoari lotuak daude, funtsean, gizakion izaera hausnartu eta azaltzeari dagokionez, bestela, erdi aroko traszendenteena azaltzerako garaian, baina arrazoi oso ezberdinengatik. Horien artean, beraien ezagutzatik hasita –gizakion izaeran dauden ezaugarri aldaezinak eta jarrera sozialari buruzko, beraien efektu potentziala- iragarpen egonkorrak eta merkataritza eta merkatuan plangintza kontsekuentek, egin ditzakegu.

Norabide honetan beharrezkoa da erreferentzia bat egitea, edozein erataria ere beharrezkoa, psikologia ekonomikoaren abiapuntutzat kontsideratu ditzakegun bi egile adierazgarri eta eragingarri. Ekonomiaren historian eta baita psikologian, bereziki psikologia sozialean dira kokatuak. Teoria jeneral, ekonomiko eta sozial bat aurkezten lehenak baitira, gizakion akzioetan oinarritua, aztarna filosofiko gogor baten lehen teoria sozialak dira. Adam Smith (1723-1790) eta Jeremy Bentham (1748-1832)-ez ari gara hitz egiten.

Ferrater Mora (1991:3077)-ren hitzetan “Adam Smithen pentsamendua, bai ekonomian eta baita filosofia moralean ere, doktrina eta praktika lotzearen esfortzu konstante bat bezala karakterizatzen da, hau da, esperientziarekin”. Oso posiblea da, aspektuak bi izatea, aurrekoarekin eratorrita, ekonomiaren eboluzioan garrantzi gehien izan dutenak.

1. Lehenik, doktrina ekonomiko baten sorreran. Komertzioaren askatasunean oinarritua, eskola klasikoa bezala ezagutzera eman zena sortu zuena, XIX. mendeko ekonomistentzat oso eragingarria izan zena. Zentzu honetan, kapitalaren eraketari buruzko egin zituen estudioak nabarmendu behar dira (bereziki bere obra, *Investigación sobre la naturaleza y causas de la riqueza de las naciones*;1776), komertzioaren eta industriaren eboluzioa.

2. Bigarrenez, Smith ekonomista bezala ezagutu arren, esan beharra dago bere filosofia moralak era erabakigarri batean lagundu zuela gizon ekonomikoaren formulazioan (*homo oeconomicus*). Eta hori benetan garrantzitsua da, kapitulu honetan deskribatu nahi dugunerako. Hain zuzen, zegoen sineskera iraunkorra. Gizakiaren izaeran zituen zenbait bereizgarri edo ezaugarri finkok, jarrera soziala eta ekonomikoa jakinarazten zituenaren uste tazitu bat sortu zen: axioma batean. Eztabaida bat edo beste izanda ere, XX. mendean ondo sartuta egon arte mantendu zen.

Baina zein dira ezaugarri hauek? Adam Smith, “berenganako maitasunaz” jardutean, gizarteko erlazioen hasiera dena. Zera baieztatzen zuen:

Ez harakinaren, ardo saltzailearen edo ogi saltzailearen borondate onaz, baizik eta, berenganako duen interesaz itxaron behar dugu gure elikagaia. Ez diogu gizatasuna erregutu behar, bere buru-estimara joko dugu; ez diogu inoiz gure beharrez hitz egingo, bai bere abantailaz. Eskaleak bakarrik fida da, gizakion uste on eta errukiaz...

Gizon ekonomikoa, izaki arrazionala da, eta bere legea “esfortzu txikiena, onura gehiena” da. Hau da, esfortzu gutxiena eginda, erraz kalkulatu ohi ditu bere onura handienak edo deserosotasun txikiak. Honek, lanean, merkatuan, diruan, eta osotasunean ez esateagatik, zati garrantzitsu batean, jarrera sozialaren parametro erabakigarrietan ondorio argiak ditu. Eta garbia da, baita sineskeria eta defendatzen dituzten baloreek ere. Nola adierazi humanismoa eta altruismoa? Existitzen al dira? Bistakoa denez ez, baieztatzen du Adam Smithek. Gizakiaren izaeran dago berarenganako duen lehiakortasun edo interesa.

Ideologia hori ez da autore honena bakarrik. Beste batzuen obra batzuk erabili ziren argumentu eta gogoeta horiek ezartzeko. Adibidez, 1859an Charles Darwinek espezieen jatorriak publikatzean. Bere biziraupen kontzeptua egokituenaren eta bizitzagatik borrokatzen duenarena (i. *Struggle-for life*), aurrekoarekin bat dator, garai hartako industrialarien baieztapen gartsuarekin. Bere logikan, oraindik erabat ahaztu gabe, ez zuen soziala ematen, aitzitik antisoziala ematen zuen, ahulenari edo behartsuari laguntzeak.

Urte batzuk beranduago, Herbert Spencerrek baieztatu zuen, gizonak beraien buruaz arduratu behar dutela, askatasuna edukiaz lehiatzeko eta beraien gaitasunik handienak adieraziz, bizirauteko. Beraz konpetentzia librea, Smithek, Ricardok eta garai hartako beste ekonomista askok babestua, eta merkatuko askatasun maximoa, gizadiaren honerako doakie. "Gizonen egoismoa, jainkoarengandik datorkie" esateraino iritsiz. Era honetara, Smithek doktrina praktikarekin eta ideologia esperientziarekin lotzeko zuen proposamena ebatzita gelditu zen.

Beraz, utilitarismoa Ingalaterran sortu zen XVIII. mendean zehar, herria, lehen industria iraultzan sartua zenean, Kantek zuen filosofiaren aurka eginez. Idazle honentzat ongi jakina da, akzioek balore moral bat dutela. Eta hau ezin da bere emaitza edo ematen zaion erabilgarritasun nagusiarengatik neurtu. Alderantziz, inpultsatzen dituen intentzioagatik eta erregulatzen dituen oinarri moralengatik. XVIII. mendeko utilitarista ingelesentzat, onak direnak bakarrik dira benetako gauzak. Eta ona erabilgarria da.

Jeremy Bentham (1748-1832) doktrina hau leku gailen batera igo zuen, oraindik gure pentsaera, balore eta iritzietan influentzia duelarik. Hedonismo psikologikoaz ari gara, bere argumentu nagusia horrela definitu dezakegularik: giza akzioak berarenganako interesarekin eginak dira, plazerra lortzeko eta mina ebazteko eginak.

Gizakion motibazioei buruzko lehen teoria psikologikoa izan daiteke. Gainera, hemen arduratzen gaituenerako, transzendentzi handiko perspektiba moral bat suposatzen du. Hedonismo psikologikoak, kodigo moral eta sozialaren oinarri bezala, *bereganako interes adimentsuaren* inportantzia bermatzen du. Honekin, baita, geroztik nonahiko dogmara potentziatua dagoen, gizon ekonomiko baten izaera "plazer eta penen aritmetikan" oinarritzen denaren justifikazioa. Geroago, kalkulu ekonomikoaren base esentzial bilakatuko zen legea, jarrera sozialak eta bide batez, ikusi dugun bezala, ekintza moralak bakoitzaren interesean oinarrituaz nola justifikatu azaltzeko erabilia.

Hori denarekin, utilitarismoa bere hasieran, doktrina progresista argi bat izan zela jakinarazi behar da. Nahi zena zen, alaitasun maximoa lortu bai alor pribatuan eta baita publikoan ere. Eta espero zena zen, ez bakarrik norberaren plazerra lortzea, baizik eta Benthamek esan zuen bezala, "onurarik gehiena pertsona gehienentzat". Bai moraltasunean eta baita politika eta ekonomian ere, biztanleriaren plazerrera zuzentzen gaituzten estrategiak hautatu behar ditugu, mina eta sufrimendua ekiditeko. Smithek baieztatzen zuen bezala bere printzipio ezagunean, *esku ikusezina*, gizaki bakoitzak, bere onurak bilatzeko bidean, esku ikusezin batek gidatzen du, denentzat onak diren akzioak bete ditzen, beraz, Estatuaren edozein interferentzia, kaltegarritzat joko dugu, jarduera pribatuetan lan zaila duen kasuan kenduta. Iniziatiba indibidualetan, arriskurako dagoen afizioan eta gizakiok bata bestearrekin dugun konpetentzian oinarrituta dauden produktibitatea, hazkundea eta garapenari esker, gizartean bizitza eta horrekin, gizakion bizi kalitatea ezin hobea izatea espero da.

Gauzak horrela, bi gauza, behinik behin, erantzunik gabe gelditu ziren:

- onura gehienak gizaki gehienentzako esateak, kalitatean ezberdinak izango direla esan nahi du.
- onura pertsonala, orokorrarekin bat etor dadin irizpide moral bat edukitzea ezinbestekoa da, non akzio baten nolakotasuna erabilgarritasun indibidualekin neurtu behar den, baina baita erabilgarritasun publiko eta kolektiboarekin ere.

Hausnarketa hauen haria, geroagoko kapituluetan hartuko dugu berriz. Orain nabarmendu beharrekoa, *homo oeconomicus*-aren kontzeptua, eta eusten duen doktrina, ekonomia klasikoaren gidari hasiera bezala azaltzen denaren gaia da. Honekin batera, hedonismo psikologikoaren teoriarekin batuta, gizakien jarrera ekonomiko eta soziala azaltzeko lehen saiakeren eta eraiketa teorikoen oinarri bezala hartua izango da.

1.2.2 Ekonomiaren azaleratze eta independentzia

Hedonismoak, asoziazionismoak eta enpirismoak menderatutako testuinguru filosofiko honetan, David Humeren obren aztarnek nabarmenduta, Industri Iraultza eta kapitalismo modernoaren jaiotza sortu zen (ikus, nahi izan ezker, terminoen glosategia liburuaren bukaeran). Bakoitzaren onura maximoaren bilakaerak, lana eta norberekeriaren arteko zatikatzeko zorrotz bat sortuko du, liberalismoaren ideia berri bezala, Elizaren agindu eta arau moralak ordezkatzu joango dena. Erreforma calvinista eta luteranoak bidea garbituko dute. Gizakion izaeraren ikuspuntu berri bat, XVIII. mendeko postulatu filosofikoetan ainguratua, eztabaida iraunkor bilakatuz, azaleratuko dena.

Hau denarekin, bi prozesu osagarri eta paralelok, emantzipazio ekonomikoa eman zioten eta hau dela eta psikologiarekin urrunketa bat gertatu zen:

1. alde batetik, ikasi beharreko gaietan espezializazioa.
2. bestetik, aurrekoarekin lotuta, ikertzeko garatutako metodo estu bat.

Zergati simple bat bilatzen saiatzea zen helburua, interes pertsonalek interes jeneralekin bat egin zezaten. Hain zuzen, erdi mailako instituzioek gizartea organizatu eta estrukturatzeko boterea galdu zutenean gertatu zen. Autore batzuentzat hauxe izan zen ikertzen ari ziren gaiak murrizteko beharra ikusi zuten puntua (gai jeneral eta sinkretikoak) eta gizon sozialaren (izaera eta jokabideak) azalpenei dagozkien gaiak. Onura maximoak bilatzean oinarrituz, interes pertsonalaren printzipioa onartuz, perspektiba askotara zabalduz kezkak sortu ziren, baina objektu komun baten inguruan sortutako metodo eta prozedimentuei lotuak daude: interes pertsonala jeneralarekin harmonizatzea. Plano ekonomiko batean, onura monetario maximoaren norbanako bilaketa. Hau da, esandako guztiak diziplina zientifiko berri baten emantzipazioaren oinarritzko baseak irudikatzen zituen.

Honekin bat, ikerketa metodo berriei, urrunketa bat ematen hasi zen emantzipazio honetan. Filosofiko eta jakindunek, psikologiarekin jatorria dutenak, azterketa enpiriko batera eboluzionatu zuten. Psikologian, barne behaketa batek, psikometria eta psikologia esperimentalari hasiera bat emango dio, baina askoz beranduago. Beraz, metodo enpiriko bat erabiltzeak, ekonometria eta estatistika bezalako erreminta intelektualekin batera, erabateko aldaketa suposatu zuen ekonomian.

Jadanik emaitza seinalatu dugu: hausnarketaren unibertsoan dagoen mugaketa eta ikertzeko metodo objektibo bat. Hortaz, ekonomia zientzia autonomo eta independente batean osatu zen. Ala ere, esan beharra dago, prezio altu bat ordaindu dutela eraketa teoriko gehienak, erredukzionismo psikologiko batean oinarritzeak: *homo economicus* haren kontzeptu errepikatuan. Berau, esan den bezala, hasierako psikologiatik dator. Gertakari ekonomikoak azaltzeko sarritan erabili zen (eta erabiltzen da). Ustezko hau ebidentzia bilakatu zen. Ekonomia klasikoaren teoriaren printzipio esentziala. Edo berdina dena, justifikatua edo demostratua izaterik behar ez zuen gertaera. Honek denak, ekonomisten bestelako suposizio eta teorian interes galera bat ekarri zuen. Ezbehar tamalgarri bat izan zen, baina seguru aski beharrezkoa izan zen bi diziplinen aurrerapenarentzat.

Ekonomia jakintza egituratu bat bezala organizatu zen, sistema ekonomikoa oinarritutako jakintzak erabiliz, baina ororen gainetik, esperientzia praktikoen jakintzekin (ikus, adibidez, fisiokraten nekazaritzako kasu bat, Rikardoren errenta edo biztanleriaren ikerketa Malthusen; hurbilketa baterako, glosarioarekin hasi gaitzke). Filosofiari gogorki loturik dagoen psikologiak - kontzeptu metafisiko eta teologikoak- introspektio bat bultzatu zuen, gizakiaren izaera aldaezin eta berdina bat, denentzat bilatzeko prozedura bat. Ez zuen ikerketa objektu mugatu batekin kontaktzen eta bere metodoak suposizio hutsak ziren, eta ezin ziren enpirikoki egiaztatatu. Itxaron beharra zegoen.

Bitartean, filosofiatik emantzipatua zegoen ekonomiak beste bide bat hartu zuen. Garapen luze eta sakon baten bidea. Honekin batera, psikologiako autoreak, geroz eta gehiago urruntzen ziren, alde batera uzten, zientzia sozialetatik. Urrunketa hori, luze eta zabal deskribatua izan da Kant (1961) eta Reynaud (1964)-en bitartez. Sintetikoki adieraziko ditugu adierazgarri diren aspektuetako batzuk:

1. Laborategi esperimentaletan, XIX. mende amaiera eta XX. mende hasierako psikologoek, prozesu psikofisiko eta fisiologikoetan zentratu zuten beraien atentzioa. Erreakzio denbora eta horrelako fenomenoak ikertzearen eta prezioen gorabeherak, jarrera sozialean zituzten aldaketa posibleak aztertzearen arteko tartea geroz eta handiagoa eta salbatzen zailagoa zen.

2. Halaber, psikologoek beraien kezkek, jarrera *anormal*-era zuzendu zituzten. Jasotako ebidentziak, arrazoi inkontziente edo gaixotasun mentalen efektuei buruz, zailtasun handiz erabili zitezkeen gastu eta aurrezpen adierazgarritasun bezala. Ez psikoanalisiak ezta konduktismoak ere, ez zuten psikologia eta zientzi ekonomikoaren arteko trukaketan lagundu. Alderantziz, nagusitasun hark, kontrako efektua sortu zuen; eta tamalgarriagoa dena, alferreko baterakuntzaren justifikazioa. Diferentzia, eta horrek ekartzen duen bi zientzien arteko urrunketa, erredukzionismo psikologikoaren azalerrate onartezinarekin eman zen. Baina harrigarria bada ere, gure egunetarako luzatu da.

3. Gainera, zientifiko sozialen zati handi batentzat, faktore psikologikoak zehaztasunik gabekoak eta neurtzeko nahiko zalantzarriak. Psikologia, ekonomiarekiko kontziliaezinezko leku batean uzten zuen. Honek, zientzia zehatz baten ezarpena nahi du, printzipio ekonomiko batzuetan oinarrituz, baliotasun orokorreko legeak sortzeko ahalmenarekin, lehen pausetik lortu ezin zitekeena.

Gainontzekoan, XVIII. mendearen erdialdetik dotrina ekonomikoek gogorki moldatu dute garapen ekonomiko eta soziala, biztanleriaren bizitzan nabarmen eraginez. Keynesen iritziz, ideia

ekonomikoak, eta Marxen iritziz, interes sozialak "historiaren motorea" direla esatera iritsi arte. Suposizio edo hipotesi hauek, behar bezala garatuak, formulatu zirenetik munduan gertatutako aldaketa, aurrerapen, erreforma eta erreboluzio (sozial eta teknologiko) handietan influentzia eduki duten doktrina ekonomikoak osatzen dituzte.

Orduetik, lau izan dira doktrina esanguratsuenak; edo gehien nabarmendu direnak besteengandik. Liberalismoa, marxismoa, keynesianismoa eta monetarismoaz (Estefania, 1995) ari gara.

Gaur egun doktrina ekonomikoek ideologia politiko eta praktika ekonomikoen arteko nahasketa bat irudikatzen dute. Gobernuak ezarritako politika ekonomikoak, limite ideologikoak gainditu ditu, beraz, korronte honetatik datozen ideiak modu ezberdinetan konbinatu ahal izateko zortea izan dugu. Gaur egun, ekonomiak eta autore ospetsuenen ideiek doktrina, modelo eta teoriak eran, sozietateko bizitzan osagai esentzialak eta eragingarriak irudikatzen dituzte. Ekonomia, independentea sendoa eta denoi eragiten diguten hausnarketez betatutako diziplina da. Mende aldaketa hau ez da bakarrik jakintza, komunikazio eta informatikarena, baita ekonomiarena ere, bere zentzu zabalean.

1.2.3 Ekonomia eta psikologia: nagusitasunak eta baterakidetasunak

Lehen azalduak, jarrera ekonomikoari ere eragiten dio, beraz, hemen karakterizatzen goazen materiari ere. Hemen sakonduko dugu orain. Egia bada, ekonomia zientzia independente batetan osatu dela, zertxobait beranduago psikologiarekin antzeko zerbait gertatu dela ere egia da. Ikusiko ditugu, psikologiak egin ditzakeen ekarpenak ekonomian, hazkundearen eta zientzia hauetan gertatzen diren espezializazio prozesuetan, duen gertutasun konbentzimendua eta antzeko objektuekin abiatuz. Aurrerago ulertzen utziko diguna, psikologia ekonomikoa deritzon diziplinaren sorrera eta garapena.

Espezializazio diziplinarraren prozesuak, oposizio natural batzuk jasaten ditu. Baita jokaera kritikoak ere, bai aurretik zeuden suposizio eta teoriari buruz eta baita ondoren etorriko diren diziplinei ere. Prozesu hau zientziaren filosofiak ondo deskribatua du, bertan, ekonomia ere ez da libratzen; eta ezta psikologia ere. Eraitza, jeneralean eta zientziaren hazkunderako, zorrozki eta hobe esanda zientzientzat, nagusitasunei eta bakoitzaren objektiboari buruzko eztabaida eta liskarrak agertzea da.

Psikologia sozialak bidea irekiz joan behar izan du, ekonomiaren antzera, ikertzeko objektu batez eta froga daitezkeen eta kontraste empirikoak dituen ezagutzak eratzeko gai den metodo zehatz bat erabiliz. Aurrerago, hirugarren kapituluaren hitz egingo dugu honetaz berriro; momentuz, XIX. mendearen bukaeratik, soziologo eta psikologoak dudan jartzen ari direla, gizon ekonomikoa eta modelo matematikoekin azaldu nahi diren jarreraren eraitza esatea, nahikoa da.

Analizatzen ari garen ondorio adierazgarrienak, eztabaidak eta nagusitasun eta mugen ondorioz sortutako arazoak dira. Zailtasunak handiagotzen doaz, ikerketa psikologikoa aurrera doan heinean eta baita estadio deskriptibo eta taxonomikoez gailentzen ari garen neurrian, argitzeko modelo kontsistenteagoen bila.

Gauzak horrela, muga diziplinarraren kontzeptua zertxobait mugatzailea da. Muga bakoitzak limite bat eskatzen du, limitazioak behar dituen bezala; hau da, nagusitasun diziplinarrera egokitzea. Baita, erredukzionistentzat, gehiegikeriak, horrela izango baziren ere, beraien iritziz, barrera diziplinar bat gaindituko zen. Hala ere, zaila da gertuko diziplinen

espezialistei trabak jartzea, besteen nagusitasunetan sartzerako garaian. Hau gertatzean, zientziek prozesua bizkortzen dute.

Benetan, prestamuen mekanismoa eta konstruktio, kontzeptu, teori eta modeloen eranspena diziplina batetik bestera askotan eman ohi da. Eta baliteke ezinbestekoa izatea jatorri eta jakintzen garapen original eta berritzaileentzat. Datu esanguratsu bezala, esan dezakegu txinatar zibilizazioak, bere garai indartsuenean, giza jakintzarako garrantzitsuak ziren ekarpenak egin zituen, adibidez: bolbora, sismografoa, portzelana, estriboa, aireak bultzatutako gurdia, inprenta mugikorak, golfa, kanoia, globoa, prezisioaren funtzioa, iparroratz (hegoaldea markatzen zuena), inprenta, paraxuta, kilometro kontagailua, timoia, planeagailua, gargailua, pistoi bikoitzeko hauspoa, kohete misila, trinketea, paperezko dirua, kartak eta helizea. Zein dira arrazoiak hainbeste bitarteko, jakintza eta teknologia izanda, Europan eman zen Industri Iraultza ez emateko? Errazki, "beraiengan itxi ziren", isolatu egin ziren. Sozietate autoritario eta hierarkizatua izan zen. Baina funtsezkoa, aurrekoaren ondorioa izan zen: jakintzak ezin ziren ez banatu ezta elkartrukatu ere.

Psikologia sozialean, adibidez, Kurt Lewinek adierazitako teoriak, fisika newtonianoaren konstruktioak erabiltzen ditu. Orain arte aurkeztutakoaren adierazpen argiena ekonomian ematen da, maila altu batean, filosofiari, historiari, eskubideei, soziologiari, antropologiari eta psikologiari zorduna. Baieztapen berdina egin daiteke aipatutako guztien artean, denak kontsideratu baititzakegu zientzia sozial bezala.

Zentzu honetan, ez dago neurritz kanpo, ekonomistek konstruktio eta interpretazio psikologikoak erabili dituztela –eta erabiltzen dituztela- beraien teoria eta modeloak lantzeko orduan. Adam Smithengandik hasi eta John Maynard Keynesen ganaino edo Kenneth Bouldingetik Gary Beckeren garaino, denak ekonomista ezagunak, ez dira gutxi adierazi ditzakegun kasuak.

Espezialistek beraiek, zientzia ekonomikoa definitzerako garaian duten ohizko modua oso deigarria da. Lionel Robbinsen era klasikoa erabiliz, ekonomia "gizakion jarrera aztertzen duen zientzia da, helburu eta baliabideen arteko erlazio eskas batekin, erabilera alternatiboekin minberatuta dagoena", baita definizio substantiboago edo materialagoak hartuz gero, Karl Polanyik egindakoa adibidez, "gizakia eta ingurugiro natural eta sozialaren arteko elkarrekintza, medio materialen gehikuntza batekin, gizakion betebeharrak asetzen dituen", ekonomia eta psikologiaren arteko erlazioak oso nabariak izan beharko lukete.

Hala ere, XX. mendean ondo sartu arte, uneoroko garapenean dagoen zientzia bezala kontsideratzen den ikerketa psikologikoen emaitzak, askotan alde batera utzia izan direla jakinarazi beharra dago. Esatea komeni da, baita jarrera sozial eta ohiturazkoarekin ere interesatua dagoela. Eta hori dena, oraindik ekonomista asko hedonismoan inspiratzen direlarik, ordudanik, XVIII. mendearen bukaera aldetik, psikologiak kontzientziaren zientzian gelditu zelakoan, eta eboluzionatu eta garrantzi sozial eta zientifiko eztabaida sortu ez balitu bezala.

Ezjakintasun batek bakarrik, baliteke alde batetik psikologiak berak proiektatutako irudiarengatik justifikatua, azalduko luke kontzeptu eta teoria psikologikoei orain ematen ari zaien erabilera, gaur gaunditua eta nabari aldatuak. Hain da erabilia mekanismo psikologikoa, eskema sinple eta linealak sortzerako garaian, izaera antzekoak dituzten modeloak kontrastatzean, adibidez, kontsumitzailearen jarrera. Edo aurrekoari ondo lotuak dauden teoriak, beharri lotuak dauden kontzeptuen hika mikan. Edo aukeraketa eta arriskuen pertzepzioaren prozesuetan, denbora luzez joko matematikoei lotuak egon diren negoziazio eta liskarrak, non kualitatiboa

kalkuluan diluitzen den. Eta horrela eta abar luze bat. Ez da harritzekoa espezialista, psikologo eta ekonomisten arteko elkarrizketak, guztiz zailak izatea. Oraindik gehiago, jarrera ekonomikoaren interpretazio psikologikoa, teoria ekonomikoaren diziplina laguntzaile bat besterik izatea espero denean.

Nabarmen, gaur egun, egoera hau ezin da jeneralizatu. Mende honen hasieratik, psikologo eta ekonomistek beraien konstruktio, teoria eta teknikak trukatu dituzte, eta gainera kontsolidatzen joan dira. Nahiko azpimarragarria da James G. March eta Herbert A. Simon-en kasua, psikologo eta ekonomista, ekonomista eta psikologo, 1958. urtean erreferentzia egin beharreko testu bat publikatu baitzuten elkarlanean. *Orgazizazioaren teoria*-k argi uzten du kolaborazio multidiziplinarrak, oso emaitza onak eman ditzakeela, arazo komun baten aurrean, batez ere, 1978. urtean aipatutako bigarrenari, Ekonomiaren Nobel Saria eman ostean. Autore desberdinek, makina bat aldiz erabili ondoren, demostratua gelditzen da testu honen garrantzia. Gaur egun, ekonomiari buruzko testuetan nahiko sarritan egiten dira, psikologo sozialen ikerketa, lan eta kontsumitzailearen jarreraren adituen pentsaerei buruzko erreferentziak. Shira Lewin (Harvard unibertsitateko ekonomista)-ek esaten duen bezala, "ekonomisten onarpenek errekonozimendu psikologiko bat behar dute, onargarriak izateko" (1996: 1293).

1.3 Psikologia, zientzia ekonomikoen testuinguruan

George Katonak (1965: 11) idatzia utzi zuen:

Pertsonen jarrerak, motibo eta jasotako erreferentziak, ingurumenaren jakintza osatzen dute, baita haien portaerarena ere. Prozesu ekonomikoak ulertzeko, jarreraren beste manifestu batzuekin batera, aldagai subjektiboak estudiatu behar dira.

Baieztapen hau, ekonomistek irakurtzeko egina izatea posible da. Gaur oraindik baliokoa izaten jarraitzen du. Autoreak, ekonomian maiztasun handiz erabilitako mekanismo psikologikoak ez zirela nahikoa "pertsonak era ezberdin batean jarduten zireneko zirkunstantzia objektiboak" ulertzeko, garbi utzi nahi zuen.

Argumentazio hau, ikusi dugunez, indarra hartuz eta zabalduz joan da zientzia ekonomikoen testuinguruan, ez aurretik traba batzuk saihestu gabe (Rabin, 1998). Adibidez, ekonomista batzuk esango dute, ekonomiaren garapenean zehar eraiketa psikologikoak egitetik utzi ez direnez, zertarako kontzeptu psikologiko berriak, daudenek teoria ekonomikoaren zati handi bat sendotu badute? Eta beste batzuek zera esango lukete, zer lortuko genuke zientzia ekonomikoak berriro ere psikologiarekin lotu ezker, giza konstituzioa medio, sortzen diren aberrazioak azaltzera bideratuz, zalantzazko baliotasun zientifikoa duten prozedurak erabiliz?

Hala ere, Katonaren baieztapenak urrunago doaz. Kritika baten manifestua da, gizakiak era mekaniko batean jokaten dugun eztabaidatzeko eta ideiak trukaketarako prest dagoen jarrera bat. Ez da teknika berriak baloratzeaz edo zientzia ekonomikoa eta psikologiaren arteko asmakeria intelektual baten basearen erlazioaz ari. Mekanizismoaren hipotesia balekoa den eta gizon ekonomikoaren kontzeptua erabilgarria izaten segitzen duenaz ari gara. Sorospidez, eztabaida akademiko eta zientifiko honetan, psikologiak egin dezakeen ekarpenaz ere ari gara.

Zentzu honetan, ekonomista gutxi adieraziko lirakeke pozik, ekonomia, zientzia normatibo bat denaren ideiarekin. Horregatik benefizio maximoaren ideiaz aparte beste arrazoi ekonomiko batzuk egon behar dutela errepikatzen dute. Beraz, dudan jartzen dute gizon ekonomikoaren kontzeptua. Ekonomia, zientzia bat bezala eratzea posible egin zuen abiapuntu nagusietako bat

dudan jartzen hasten da. Ez da harrizkoa. Lehen jakinarazi dugun bezala, zientzia gehienek, heldu diren lekura heltzeko erabilitako abiapuntuak aldatuz eboluzionatzen dute.

Ekonomista batzuk seriooki ohartarazi dute gai honen inguruan (Rabin, 1998). Analisi mikroekonomiakoa, gizakiok gure erabakiak hartzerako garaian arrazionalak gabela esanaz hasten da, hitz hauen aldeko adostasun bat existitzen ez den harren.

Batzuetan, bat bateko objektuen irizpidea erabiltzen da. Elekzio arrazionala, irizpide honen iritziz, gure nahiak exogenoki hautatzen ditugunaren sineskerian oinarritzen da, beraz, ez dago arrazoi logikorik horrela ez dela esateko. Jeremy Benthamen hitzetan, "poesia gustatzea ez dago orratzen jokia gustatzea baino gutxiago baloratua". Eta honela, dena azalduz azkenean ezer azaldu gabe amaitzen du. Eta horrela zailtasunak sortzean, ekonomistek beste arrazionalismoaren irizpide bat erabiltzen dute, *egoismoa*. Baina, berriz ere arazoak sortzen dira, pentsamolde honek ez baitu kontuan hartzen pertsonok ez gabela adimena bakarrik, baditugula gure ohitura, pasio eta apetituak, (Frank, 1992: 227).

Pozgarria da, Katonak sortutako eztabaidak bere bidea egin duela ikustea eta gero eta nabarmenago azaltzen dela sumatzea. Zergatik, psikologia, ezagutzen dugun bezala, diziplina enpiriko bat da. Fenomenoak ulertzerako garaian ekarpen baliotsuak egiteko kapaz da, adibidez, lehen deskribatutako elekzio arrazionalaren prozesuaren ikerketa. Bere helburua ez da gizakion izaerari buruzko lege orokorrak bilatzea soilik, baizik eta baita, baldintzatzaile espezifikoko eta bere jarrera manifestuen artean dauden irregulartasunak aurkitzea. Jarrerak, sistema dinamikoetan jarduten du. Malgua eta aldakorra da, eta beraz, oso zaila da erlazio egonkorak erreproduzitzen dituen orokortasunak bilatzea.

Azken finean, gizakiok iragandako esperientziak erabiliaz ohitura, aldarte eta biziera batzuk sortzeko, faktore exogenoek finkatutako limiteen barruan. Printzipio hauen errekonozimenduak, ekonomista batzuen interesa piztu du (Lewin, 1996; Rabin, 1998), Katonak "ekonomia psikologiarekin" izendatu zuena osatzeko. Bertan, gizakiok erabaki ekonomikoak hartzean, zer gertatzen den ondasun materialera bideratzeko, aztertzen da. *Giza jokabideak*, azken finean, eguneroko bizitzan biztanle, kontsumitzaile, enpresari, enplegatu bezala burutzen ditugunak.

Azaldukoaren ondorio substantzialena (Webley eta Walker, 1999) kondizio errealetera iristeko, aurrez hartzen ziren kondizio idealak abandonatzean dago. Ikuspuntu honetatik, nola portatu beharko genuke gizakiak esfortzu minimoa eginez onura maximoa lortzeko?, galdera erantzuteari utzi beharko genioke. Orain dugun perspektiba berri honekin, galdera berria hau izan beharko zen: zer nolako jarrera motak azaltzen dira eta zer erabaki hartzen dira egoera ezberdinetan eta pertsona talde ezberdinen artean?

Galdera hauei eta beraien deribazio subsekuenteei zorrozki erantzun ezkerro psikologiadun ekonomiak zentzua edukiko zuen. Jadanik bultzatu eta osatu dezakegu jarrera ekonomikoa azalduko digun gorputz bat. Prozesu ekonomikoaren ikerketa psikologikoa posible da, gizakion jarrera, erregularitate neurgarri bat bezala azaltzen baita, testuinguru mugatu baten barruan. Ia bada denbora dezente, pertzepzio diferentzia, arrazoia, balorea, jarrera, eta abar luze baten ebaluazioa, objetiboki ebaluagarria dena. Eta hau dena, estatistikaren ebaluazio azeleratuagatik, analisi korrelazional anitz eta estrukturatuagatik eta psikologia esperimentalaren garapenagatik.

1.4 Ekonomia, psikologiaren testuinguruan

Badirudi, ekonomiak psikologiarik gabe prozesu ekonomiko garrantzitsuak ezin izan dituela eraginkortasun handiz adierazi. Baina, zer gertatzen da ekonomiarik ez duen psikologiarekin? Ba berdina. Psikologiatik, prozesu ekonomikoak eta jarrera sozialean dituzten influentziak ahaztean, gizakion jarreraren ditugun aspektu komunetako batzuk aztertzeko aukera galtzen da.

Hau da, ekonomia eragina duen gizakion jarrera bat existitzen da, non aldi berean gizakion jarrerari ere eragiten dion. Objektu bikoitz honek, psikologiadun ekonomia eta ekonomiadun psikologia, gertuko erlazio bat dute bizitza sozial eta ekonomikoko zati batzuetan (osasuna, erosketak, lana, aurrezteak eta edukazioa). Azken finean, psikologia ekonomikotik eratorritako jakintzek, kontsumoa, umeen sozializazio prozesuak, laneko psikopatologiak, publizitatearen influentzia, gorabehera ekonomikoak eta osasunarekiko influentziak, jarrera prosoziala eta abar luze bat estudiatzeko erabilgarria da.

Psikologia guztia ez da klinikoa eta ezta psikologia kliniko guztia ere, fenomeno psikopatologiko apartekoarena. Bada osasunaren psikologia bat, bere helburua jarrera sano bat izatea dena, eta ez duena zergatik apartekorik edo patologikoan oinarritua egon beharrik. Berarengan, gertakari ekonomikoek dute eragina. Bere jakinduriak garapena hobetzen lagun dezake. Zer esan presio fiskala, langabezia, inbertsio baten pausoak, burtsaren gorabeherak eta PIB (Productio Interior Bruto)aren igoerari buruz, ez dira hauek gure bizitzan eragina dutenak eta biztanleriaren jarreraren eragina dutenak? Psikologia, jarrera konbentzional eta egunerokoarena ere kontuan hartuz osatzen da, gizakiongan satisfazio edo insatisfazioak sortzen dituenean.

Psikologoak ere *gizon gaixoa* (bereizketa hau egiten uzten badigute, soilik *homo economicusa* eta *homo infirmusa*: "firme ez dagoena" kontrajartzeko)-ren kontzeptutik distantzia bat hartzen joan beharko genuke. Denbora gehiegian presente akzio psikologikoari ekiterako garaian. Gure estudioko objektua ez da bere lekutik irtenda dagoen jarrerarena bakarrik, baita gizakion jarrera orokorrean. Eta bertan konstanteki eragiten dute fenomeno ekonomikoek.

Argumentu on bat izango zen, ekonomia eta psikologia diziplina handi eta konplexuak direla eta bakoitzaren jakintza apropos bat bilatzen bizitza oso bat beharko genukeela esatea. Existitu al daiteke bi materietan aditua den pertsona bat? Oso nekez gerta daitekeen gertaera bat da. Ekonomiaren gai eta espezialitate batzuk dominatzea nahiko zaila da. Berdina gertatzen da psikologiarekin.

Hala ere, bien diziplinen arteko muga eta mugarriak nahiko anbiguo eta arbitrarioak dira. Arazo honetatik ez da zientzia sozialik libratzen (Gil *et al.*, 2004). Baina, zaila bada bi diziplinetan aditua den bat bilatzea, ez da hain zaila egiten ekonomiaren eta psikologiaren aspektuak batera estudiatzen dituzten pertsona bilatzea, bakoitza aparte estudiatu ordez. Ez da gehiegizkoa, bi materietan prestakuntzako oinarri bat lortu daitekeela esatea. Hori dela eta, psikologia ekonomikoa espezializatzea bidezkoa da.

Hau da psikologia ekonomikoa: oinarritzko jakintza batzuk hartzea, ekonomia eta psikologiaren fenomenoak batera estudiatuz. Hau da baita ere testu honen helburua. Ez da zehatz-mehatz burutu beharreko eskuliburu bat eta psikologia ikasten ari diren ikasleak materialian sartzeko baliozkoa da. Eta nola ez, jarrera ekonomikorekin arduratuta dagoen edonorentzat.